ZER
ALDIZKARIA
452. zenbakia
2018 URRILLA

Bizkaitarrei Bizkaieraz

www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

Bizkaian euskerea jagon eta indarzeko deia

8. orria



Guadalupe Andra Mari
Fray Juan Zumarraga
Zenon Uriguen, Pasiotarra

AURRERAPENAK ETA OITURAK

Euskalerrian euskeraz
EUSKERAZALEAK

2018-2019 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 51. IKASTAROA
IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 15ean

51. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 19 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak
ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA
Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO
Urrutizkina : 944 235 322
info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ISSN: 1132 - 1350
Lege gordailua: BI-1452-85

KATALUNIAKO AUZIA: Ibilbide historiko laburra (III)

Angel Larrea Beobide

Inperio espainiarraren azken lurrak galdu ostean, 1898tik aurrera, Katalunia arazo politiko nagusia biurtu zan Madrilgo gobernuko agintarientzat, an gertatzen ziralako auzi arriskutsu bi oneek: "separatismoa" eta langileriaren aktibitate erradikala. F. Cambó-ren proposamenaren arabera, zera egin bear zan: katalanen presentzia politikoa areagotu Madrilen, gobernuaren inguruan, Espainiak bear zituen erreformak eta politikak aurrera atera aal izateko. Baina oztopoak oso andiak izan ziran: alde batetik gizartearen sektore boteretsu kontserbadoreak (lurjaube andiak, Eleiza, Armada...); eta bestetik, aktibista erradikalak eta terroristen ekintza bortitzak. Azkenean, aitatutako politiko kataluniarraren proposamenak porrot egin eban, eta egoera naastu orretan Miguel Primo de Rivera, Kataluniako kapitan jeneralak Diktadura militarra ezarri eban Espainia osoan (1923-1930), ain justu Europako politikan komunismoa eta batez be faxismoa gorantza joaten asi ziran momentuan.

1931ko udabarrian egindako udal auteskundeetan indar errepublikanoak atera ziran irabazle. Erregeak alde egin bear izan eban eta Konstituzino barria ezarri zan. Momentu politiko itxaropentsua izan zan, baina arazo andiak be baziran, esate baterako, nekazarien lurren auzia. Errepublikanismoa zabalduta egoan gizarte kataluniarrean, baita autonomia politikoa lortzeko gogoa be bai. Egoera orretan, 1932an, Autonomia Estatutua onartu egin zan Katalunian, Espainian leena. ERC (Esquerra Republicana de Catalunya) alderdi politikoko buruzagiek protagonismoa artu eben orduan, Francesc Maciá-k "Estat Català" aldarrikatu ebalarik, eta 1934tik aurrera Generalitateko presidentea zanak, Lluis Companys-ek Errepublika Kataluniarra proklamatu eban, beti be "Iberiar Errepublikaren Federazinoa"ren barruan (ikusi argazkia). Ausardi politiko onek ondorioak ekarri eutsazan, Gerra Zibila amaitu ostean, 1940. urtean ain zuzen be, Montjuic-eko gaz-

teluan urte batzuk preso egonda gero, Companys-en fusilamendua agindu eban Francok. Ondoren, ERCko beste politiko batek artu eban aren kargua, exilioan jada, Josep Tarradellas presidenteak. Francok eta tropa nazionalak Gerra Zibila asi eta irabazi aurretiko tartean, esperientzia guztiz berezia gertatu zan Espainia errepublikarrean eta, arean indartsuago, Katalunian: Anarko-sindikalismoaren prozesu iraultzailea: fabriken, propiedadeen eta nekazarien esplotazioen kolektibizazinoa.

Diktadura frankistaren denporan, oposiziño politiko demokratiko katalana bizirik mantendu zan, exilioan eta klandestinidadean, leen aitatutako ERC, PSC eta PSUC ezkertiarrak, Unió Democrática eskoitiarra, eta beste alderdi eskoitar sortu barria, Convergencia Democratica de Catalunya, Jordi Pujolen agintaritzapean. Franco il eta gero, "Trantsiziñoa"ren urteetan, 1978ko Konstituzinoaren testua idatzi ebenen zazpi kideen artean, politiko kataluniar bi izan ziran: Miquel Roca,



Miquel Roca eta Jordi Solé Tura.

Convergencia i Unió koalizinokoa, eta Jordi Solé Tura, PSUCekoa. Protagonismo katalandarrak urrengo amarkadetan be iraun eban espainiar politikan. 2003-2010. urteen artean, Generalitateko presidente sozialisten garaian, Estatutu barriaren aldeko apustua egin zan, baina J. Mª Aznar, gobernu zentraleko presidente eskoitiarrak, geiengo parlamentarioa eukala aprobetxatuz, Autonomien garapenaren aurkako politikeari emon eutsan asiera: konpetentziak ez transferidu; presiño politikoak egin, Tribunal Konstituzionalaren aurrean oztopo legalak jartzeko. Ondorioz, Kataluniako Estatutuari ezarritako mugak eta errekurtso judizialak "Procés" deitutako mobimendu sozio-politiko soberanista eta independentista eragin eben 2009an asi, 2012an arindu eta gaur egun ezagutuen dogun egoera korapilatsura arte.

Ondorioa: 1936-1939ko Gerra Zibilak eta osteko diktadura luzeak (1939-1975), au da, frankismoak arrakala sakona zabaldu eben gizartean.Aren amaieran, kultura politiko demokratikoaren utsunea nabaria izan zan, batez be potere eta negozioetatik gertu mobiduten ziran eskuin aldeko talde eta politikoen artean: Espainia mailan, M. Fraga Iribarnek Alianza Popular alderdia sortu eban, egun Partido Popular (PP) dana; eta Katalunian, J. Pujol-ek Convergencia Democratica de Catalunya, egun PDeCat deitzen dana. Biek, alderdi politikoak izateaz gain, interes ekonomiko-

komertzialak eta korrupzinoaren edo ustelkeriaren inguruko sareak be euki dabez antolatuta euren egituretan. Arazo onek sortu dauen krisiak kalte andia egin deutso sistema politikoari: Kataluniaren kasuan, krisian jarri eban "Convergencia", gobernu autonomoa eta geiengo politikoa galduz eta, azkenean, desagertuz (bere espazio politikoa gorago aitatu dan PDeCat-ek bete egiten dau); eta Espainian, krisian jarri dau PPk eta PSOEk 1978tik aurrera espainiar Gorteetan mantendu daben bipartidismoa.

Azken urteotan eszenatoki politikoaren aldaketa garrantzitsua ikusi dogu: alderdi barriak, PPri Ciudadanos agertu jako eskuineko espazio politikoan; eta PSOEri Podemos, ezker aldean. Katalunian, PPak galdu egin dau indar politikoa Ciudadanos alderdiaren mesedetan, eta PDeCat-ek be galdu egin dau pisu politikoa Esquerra Republicana de Catalunya alderdiaren mesedetan. Bestalde, bloke konstituzionalistak (PP, PSOE eta Ciudadanos) ez dau erakutsi edo ez dauka erantzun barririk gaurko eguneko eztabaida politikoak maai gainean dituen erronka nagusiei urteerea emoteko: orma konstituzionalak, Monarkiarena besteak beste, korrupziñoaren arazoa, eta lurralde autonomikoen eredua, Kataluniako auzia barruan dalarik. Baliteke une au ziklo historiko baten amaiera izatea, Espainiari gertatu jakon moduan Inperioaren azken koloniak galdu ebazanean 1898. urtean Politikearen ordua da orain. Pentsamentu ezbardinak, au da, nazionalismo espainiarraren eta katalanismoaren arteko dialogoa eta akordioak edo "paktismoaren kultura" ezinbestekoak dira.

BIZKAIAN EUSKEREA JAGON ETA INDARZEKO DEIA

Agiri au izenpetzen dogunok, Bizkaiko euskal erakunde batzuetakoak, alkarregaz euskerearen egoerea aztertu ta gero, gauzarik beinenetan gatoz, eta orregaitik.

1.—AUXE ADIERAZOTEN DOGU:

1.1.—Benetan artega eta larri gagoz, euskereak gure artean, Bizkaiko errietan, agertzen dauan egoera ikustean: erri-errian eta etxe barruan, geroago ta makalago; erdal pentsakeren eta izkuntzen menpean; nagusien eta umetxu-gaztetxuen artean ikaragarrizko eten bat sortzeko arrisku bizian; erdal giro indartsu baten murgilduta eta erdi itota...

1.2.—Ainbat aldetan ikusten doguzan alegin andiakaitik itxaropentsu bere ba gagoz: euskereak "izen ona" lortu dau gaurko gizartean eta euskaldun askoren gogo-biotzetan; euskera ikasleak —adin guztietakoak— ugaritu egin dira; ikastola, ikastaro, ikasturte, gau eskola, euskaltegi, era bateko eta besteko ainbat erakundek lan gogor eta txalogarria daroe aurrera...

1.3.—Gu guztiok bat gatoz oinarrizko eretxi onetan: euskereak Bizkaian iraungo badau, bertoko euskalki berezia jagon, sendotu, zabaldu, aberastu eta gaurkotzea bearrezkoa da. Gure errietan bertako berbetea alboratu eta gitxitzat eukitea, mesedegarri barik guztiz kaltegarri dana ziur gagoz, eta ez Bizkaiko euskalkiarentzat bakarrik, euskerearentzat berarentzat eta gizarteko artuemonetarako ere bai. Bizkaitarrok —eta baita gure euskalkia darabilen Gipuzkoa eta Arabako erriak ere— bizkaiera ezagutu, geuregandu, eta errez eta zuzen berba egiten eta idazten jakin bear dogu, leenengo ta bein. Au lortzen badogu, euskereak bizi-bizirik iraungo dau gure artean, eta batasunerako biderik geiena eginda dago. Baina au galtzen badogu, ziur be ziur gagoz, azal-azaleko itxura dotore batzuk iraun arren, euskerearenak egin dauala Bizkaian (eta ez daigun aaztu, euskaldunetarik % 40ren batek bizkaieraz berba egiten dogula gaur!).

1.4—Ainbat erritar minduta agertu jakuz, gure erakunde batzuetan —ofizialetan ere bai— euren buruak, bizkaierea erabiltearren, baztertuta ikusten dituelako, bizkaierea euskera ez balitz legez. Onen aurrean, geu ere mindu egiten gara.

2.—AU OLA DALA, DEI LARRI BAT EGINEZ, AUXE ESKATZEN DOGU:

2.1.—AOZKO BERBETEA jagoteko eta indatzeko bide egokiak billatzen eta zabaltzen alegindu gaitezela guztiok.

2.2.—Norberaren etxe, auzo ta erriko euskera bizitik ALFA BETATU daiguzala ume, gazte eta nagusiak: albait arinen, aal danik eta nekerik txikienaz, bear-bearrezko ez diran eragozpenak baztertuz, mailaka-mailaka euskera zabalago baterako ateak edegiz...

2.3.—IKASTETXE GUZTIETAN bertoko euskera berezi eta nortasun andiko au irakatsi daitela, ikasleak gure euskalkia zuzen eta txairo erabilteko —bai berbaz eta bai idatziz— gai izan arte. Bien bitartean, beste sistemaren bat jarten astea kaltegarri izango litzateke.

2.4.—Ori lortutakoan, ontzat emoten dogu beste euskalki eta erak ezagutu eta ikastea: auxe izan da, ain zuzen, aspalditik bizkaitar askoren jokabidea.

2.5.—Gure aldizkari, irrati, TV, eta gizarte-artuemonetarako beste tresna guztiak bere aintzat artu daiela emen eskatzen doguna.

Bilbon, 1981, Abenduaren 21ean.

Joseba ATXA
Bilbo Elizbarrutiaren Ikastolen
Arduraduna

Fermín IRAOLAGOITIA
Ikastola Katolikoen
Alkartearen Lendakaria

Jesús EGUZKIZA
Bilbo Herri Irratian
Euskal Sailekoa

Jabier URIARTE
Hizkuntza Eskola Ofizialeko
Euskal Sailaren Arduraduna

José Antonio RETOLAZA
Ume eta Gaztetxo Euskaldunen
Alfabetatze-Ekintzaren Zuzendari

Agustín ZUBIKARAI
Idazlea

Karmelo ETXENAGUSIA
Irakaslea

Martín OLAZAR
"ZER" Aldizkariaren Zuzendari

Lino AKESOLO
Euskerazaintzako Zuzendari

Ander MANTEROLA
Derioko Udako Euskal Ikastaroaren
Zuzendaria

Iñaki ZUBIRI
Euskerazaleak-eko Lendakari

AURRERAPENAK ETA OITURAK



Argi indarra Thomas Edisonek, 1879´an lenengo bonbilla piztu bazun ere, gure basarrietara iristerako urte mordo ederra joan zan; adibidez, gure basarrira 1940´an sartu zan argi-indar ori. Beste baserri askotarako berdintsu izango zan nere ustetan.

Errian, Errota Zarra zeritzaion etxea zan eta iriña ezezik, indar ori ere.

Andík banatzen zan erri guztira. Gure baserrira baíño lenago jarritako etxeak ikusten genitun, eta "luzeletrika" deitzen genion. Gure basarriko sukaldean lenengoz bonbilla nola piztu zan gogoan det, eletrizista edo Errota Zarreko nagusiak nola esan zun ere bai: "Orain aberatsak bezela". Oraindik baziran basarri geiago indar ori sartu gabeak, zurkeriangatik eta abar.

Auzotar batzuk billera egin omen zuten, alkar artuta indar ori ekartzeko artaraka merkeago urtengo zitzaiela-ta. Bat oso kontra ordea, eta ala omez zion: "Jainkoak egiten ziola naiko argi". Iztun egokia izan bear zun aiton orrek, bai bere buruan kalterako ere. Zenbat orrelako?

Geroztik izan da aurrerapen ederrik indar kontu orretan. Errota Zar artako indarrak bereala eskastu ziran, gero beste zentral batetik osatzen ziralarik naiko ondo, baiña ala ere naiko urri denboraz, Iberduero etorri zar eta bukatu ziran eskaxiak eta eziña, Poste txar eta nolabaiteko ari aietatik beste segurantzi batekin bizi gera gaur.

Askotan sinistu eziñik egoten naiz, argi-indarra sartu baiño lenago orduko kinke, parol eta kandelakin nola etzan oker geiago pasa baserri zar aietan? Errekin onik baldin bada, bat baserria da gero...?

Bestetik konturatzen al gera bear bezela zer opari egin zion munduarí Edisonek? Jaun zerukoak edukiko al du bere ondoan.

Aurrerapen ederrak etorri zaizkigu, baiña geienak, danak ez esatearren, argi-indar ori bear.

Thomas Edisonen inbentu ori
iritsi zan basarrira,
esan ziteken pasa giñala
ilunpetatik argira.
Era ortako gizon klaseak
oso bakan sortzen dira;
Jaungoiko onak eramango al zun
zeruan erdi-erdira.

Txomin Garmendia

AURRAK ETXEAN JAIO.

Beste gure garaietako aldakuntza bat, aurraren jaiotzetan izan da; ama bizi zan etxean izango zun aurra; auzoan edo inguruan izango zan eskarmentua zun etxekoandreren bat, ura ekarriarazi eta aurrera. Etxekoandre oieri "Partera " deitzen zitzaien, eta laguntza pranko egindakoak izaten ziran. Estuasun larririk bazan, sendagilleari deituko zitzaion eta maleta txiki batekin etortzen zanez, aurra an ekarri zuela esango senide umetxoairi, Paristik ekartzen zituztela ere bai.

Lenago ere, mutiko batek eskolatik urten zanean, etxera azkar joan bear zuela esan omen zion beste bateri, amak Paristik anai bat ekarri ziola-ta. Eta onek: "Orixe, zuek, aberatsak zerate-eta, zuek Paristik, gure amak etxean egiten dizkik". Gaur ez dago orrelakorik.

Gaur, nobedaderik txikiena sumatzen danean, trasteak artu eta gertuena dagon gaixo-etxera joango da erditzea dijoan emakume ori, eta an izango du bere landaretxoa.

Berrobin, lengo pentsamoldeko apaiz zaar bat gendun erretore; urtearen asierako igande batean pulpitutik aurreko urtean izandako ezkontzak, entierroak, bataioak eta jaiotzak esango zitun,okerrik baldin bazegon zuzentzeko ere. Urte batean (ordurako ama guztiak pamilia izatera Tolosara joaten asiak ziran), "Ezkontzak ainbeste, entierroak ainbeste, bataioak ainbeste, jaiotzak zero... Orain danak Tolosara joan bear dezute, desonrra al da Berrobin jaiotzea? Edo, oraingo emakumeak danak elbarrik al dira?".

Apaiz arentzat kanpo jaiotzak
etziraden grazikoak,
pulpitutikan botatzen zitun
sarri berebizikoak.
Arrazoi aiek ez ote ziran
etorkizun gutxikoak?
Bizia ta osasuna dira emen
lendabizikoak.

Apaiz ark zerbait arrazoi ba ote zuen ematen du, baiña erditzera dijoan ama ori gaixo-etxera joanda, artuko dute lasaitu ederra berak eta etxekoak.

Garai batean, aur jaioberri asko iltzen zan; ortatik etorriko zan bataiatzeko presa ura ere; gaur zorionez, oso aur gutxi iltzen da jaiotzatik. Lege aldetik ere.asko aldatu dira gauzak: garai batean aurra nun jaiotzen zan,erri ura jarriko zan jaiotzako paperetan; gaur naiz Berrobiko ama bat,·Tolosan erditu, Berrobi jarrito da paperetan. Beraz, apaiz aren pentsaerak arrazoia galdu zuten.



Guadalupe Andra Mari Fray Juan Zumarraga

Zenon Uriguen, Pasiotarra

Mundu barria.

Oso jakingarria da Kristau fedearen asiera Mexikon. 1523 urtean amabi franzizkano etorri ziran ona. Urte batzuk geroago Dominicos. 1533 urtean Agustinos. 1572 urtean Jesuitas. Danak dauke elburu bat: Mundu barria, Jaungoiko barria, kristau fede barria, izkuntza barria. Eta gorengo maillan 1531ean Andra Maria, Guadalupeko Jainkoaren Amaren agerpen miragarria. 1531 urtean gotzain barri bat Fray Juan Zumarraga. Nor izango da erri onetan Kristoren. mezulari gorengoa? **Guadalupeko Andra Maria**. Berak aukeratuko dau indio gazte eta pobre bat Juan Diego, Zumarraga gotzañaren bidez zorioneko Agerpenean Kristau fede barria sortzeko.

Agerpenak.

Tepeyak muinoan agertzen jako Juan Diegori Andra Maria goxo-goxo itz egiñez "ni naz Andra Maria egiazko Jainkoaren Ama eta nai dot emen Eliza egitea nire maitasuna ta errukia oparo isuritzeko. Zoaz Gotzainaren aurrera ta esan Tepeyac mendian eliza bat egiteko". Juan Diego badoa Gotzainaren aurrera esanez: Andra Maria agertu da Tepeyac mendian eskatuz egiteko Eliza bat. Au da bere agindua. Zumarraga gotzainak begirurez onartu dau Andra Mariaren mezua ta esaten dautso:

"Gauza bat bakarrik eskatzen dautzut: Ekarri señale-ezaugarri bat ori onartu ta sinisteko"

Laugarren Agerpena.

Andra Mariak Juan Diegori: "Igon, mesedez, Tepeyac ganera eta an ikusiko dituzu lora ederrak, artu ta ekarri egidazuz. Juan Diegok ikusirik arrituta lora

eder-bitxiak, Kastillako larrosa ugariak ebaki, eta poliki-poliki batu zituan manta zuri (tilma), batean. (Etzan lorak loratzeko sasoia, ta ango arrien artean etzan sortzen lorarik). **Juan Diego joan zan Zumarraga gotzainaren etxera eta manta zuria-tilma zabaldurik jausi ziran lorak lurrera bere aurrean eta miraría!!! Juan Diegoren manta zurian agertu zan, moldaturik, Andra Maria Jaungoikoaren Amaren antz-irudia, mantu ederrez jantzia. Zumarraga gotzainak ezaugarri bat eskatu eutson Juan Diegori. Ara or sekulako miraría ta ezaugarria. Belaunikatu zan oso arriturik ta fedez beterik. Zumarraga jaunak, sinismen biziaz, erabaki eban Andra Mariaren irudia erriko elizara eroan eta biotz-biotzez Guadalupeko Amari Tepeiac ganean eliza bat egitea.** Mirari onen oiartzuna lau aizetara zabaldu zan eta Tepeyac muinoan Guadalupeko Amaren eliza barria eraiki zan. Millaka lagunek datoz Kristau bateoa eskatu otoitz egin eta mesedeak eskatzera.

Juan Zumarraga

1548 urtean Mexikon arzobispo izendatua da Durangoko seme zintzo eta eragin aundikoa. Orain bai Guadalupeko Andra Mariaren zeruko deia ta mirariak ikusirik asi da, ekintza goragarriak egiten: eleiza barrian Andra Mariaren zoragarrizko irudia, mundu ontako iñork egin ta margoztu ez dauan miragarrizko moduan agertua, eliza barruan orain agertzen dana, begi-biotzak arritu ta irabazten dakiana. Zer egin? Zumarraga arzobispo jaunak ekarriko ditu Españatik Franzizkanoak. Andik urte batzuetara Mexiko´k eukiko ditu ainbat gotzaiñak.

Zumarraga jaunak Andra Mariaren miraríak ta errien erromesak ikusirik kontura-

tzen da Guadalupeko Andra Mariak ondo merezi dauala basilika bat Tepeyac ganean eta erriaren laguntzaz asi da Santutegia eraikitzen. Lan ori amaitzeko urteak bearko dira, baña nekearen nekez, agertuko da bere edertasuna Tepeyac ganean gaur zoragarri ta ikusgarri dan Guadalupeko Santutegia. Kontau eziñak dira Santutegi eder ontara datozen erromesak, Amerika latinaren nazio askotatik. Gaudalupeko Andra Mariari eraspena ta fedearen indarra ikusirik Juan Pablo II aita santuak Amerika Latinaren Zaindaria ta Estrella de la Evangelización izatea erabaki eban.

"Zu gorputza zara, ni espiritua" esan da. Zer da ori? Gauza oberena da biekin bat egin, bizi ta eragitea. Euskal leen gaia gizaki osoa da.

EUSKALERRIAREN EDESTIA-I (XI.)

2. ZATIAN.

Afrika, Asia ta Europan.

Erreka, mendi, toki ta erri izenetan ostonduta dagozan sorburuzko edo oiñarrizko euskal itz, asko dira.

Orain jakintsuak argitzen dabizena, eta azkar esan leike, lendik eginda dagozan lanak, sakonak diralako.

Europan, erreka askoren izenak, itz bardiñakin emoten dabez euren esangurak ezagutzera, edo euren oiñarriaren sorburuzko itz bardiñakaz bai beintzat.

Susterrezko itz bat, is adizkia(1) da: Noruegatik asi ta Italiaraiño, peninsula onetatik Errusiaraiño, ta Bretaña Aunditik Balkaneseneraiñoko 200 errekatan baiño geiagotan aurkitu diranak, adibidez:

-Noruegan Iselfjorden edo Isa Italian.

-Errusian Isainka edo Iesla Lituanian.

-Txekiako Errepublikan Jizera edo Ijssel Beko Errietan(2).

-Euskeran ***iz*** berbea, s lez esanda: ura edo ur lasterra esangura dau.

-Izen itzak, era bardiñetan agertzen dira ur (aur), var (ver), sal (salm) edo al (alm).

-Ur itzak ur geza(3) edo ur gazi(4) esangura dau, eta ***ura*** ur tira edo ***ur*** lasterra(5).

-***Al*** eta ***sal*** itzentzako be, esangura bardin antzekotan babestu edo zaindu dira, danak batera, Euskerazko Izkuntza aldi baten, oso zabala izan zala erakusten dabela.

-Izen onein esaerak, beste ainbesteen artean, adibidez: Noruegan ***urula***, Bretaña Aundian ***irwell***, Beljikan ***ourthe***, Alemanian ***auerbach***, ***ur-bach***, ***aurach***, Austrian ***irrsee***, Frantzian lenago ***urofia*** izan zana eta gaur ***aroffe*** eta ***huriel***, espainian ***urura*** ta ***urola***, Polonian ***urwis***, Errusian ***ura*** eta abar.

-Alemanian ***var*** adizkia daukien izenak: ***warne, werre, warmeno, warme, aue,*** dira.

-***Sal*** adizkia dauken izenak: ***saale, sale, selz*** (salusia), ***selke*** (salika).

-Eta ***al*** adizkiagaz: ***aller, alm, bi alme,*** bata ***almana*** eta bestea ***almara, ahla, elte*** (alantia) eta ***elz***.

-Erdiugarte edo peninsula onetan, besteen artean izen oneik agertzen dira: ***alba, alenza, almar, almanza, almonte, almantes,*** eta abar.

Lenagoko izkuntzaren izenak be, oiñarrizko itz orreitatik etorri leikez, orduko gizarteen leiñuak, erreka edo lurraldeek euki eben alderdi eder baten berezitasunetik, izenak artzen ebezalako.

Erdi ugarte onen Iparraldean, Erromatarrak ***iberus*** esan eutsoen Ebro ibaiari.

(1) Is adizkia = elemento berbal. (2) Beko-errietan = Paises-Bajos. (3) Ur-geza = agua dulce.
(4) Ur-gazi = agua salada. (5) Ur-Lasterra = corriente de agua.

Ebro erreka onen luzera guztia, bere urak Lurrarteko Itsasoan bota arte, danak euskeraz berba egiten eben lurraldeak ziran.

Eta izkuntzalariak ez eben bearko burutasun aundirik egin, euskeraz ***ibai*** errekea dala esateko eta ***ibarra***, errekeak bere urak itsasoan botaten dauazan ***ibar*** zelaiari.

Guadalajarako erria, Segobia, Soria, Zaragoza(1), Teruel, Kuenka eta Madril erriengaitik mugatuta dagoena, antziñan euki eben izena ***arriaka*** izan zan.

Erromatarrak etorrita, Toledotik aldatzen zan Zaragoza Meridaraiño egin eben bidea, Arriaka ibaiaren albotik igaroten eban, eta Mauritarrak etorrita Guadilhijiarahren(2) izena ipini eutsoen, gaur eurengandik datorren Guadalajara izenagaz ezagutzen doguna.

Ernest Försteman alemanak (1.822-1.906) germaniar eta amerikar izkuntzalariak XIXn gizaldi erdian toki izenen azterketan ibili zala: errekaren antziñako izenak, ***leunkatubako***(3) bitxiak zirala esaten eban.

Vennemanntar Theo, germaniar ele jakintzaren maixua(4), Fostertar Peter, Kanbridgesko Ikastetxe Nagusian genetikaren irakaslea ta Hameltar Elisabeth barrien idazleak esaten dabena:

Ebersberg erria, Babieraren goi aldian Ebrach ibaiaren ondoan kokatuta dagoenean baiño, aurreratsuago basalde zabal, abartsu edo ta oiantsua dagoen tokia, Erdi Aroan ***Eberes-perch edo Eparesperc*** izenagaz esagutzen zala.

Uri orren izena, basarte orreitan eizarako egon zan ainbat abereen izenetik datorrela (Eber = basurde, bas-auntz edo orein eta Berg = mendi) esan leike, eta euren armarrian orregaitik ipinita daukiela basurdearen irudia.

Antza baiña ez da olan, Ebrach izena eredu lez artuta, Ebersberg izena Ibai esan gure daualako, eta apur bat estututa Ibai Ibai ipini eutsoen azkeneko ***ach*** ori euren Ego aldean dagoan Aleman mintzadar edo izkelki baten ***ibai*** esangura daualako.

Frantzian, izenak gaiñera ainbat ***eber***-ekin asten dira, nai ta beste izkuntz senditik etorrita doiñu ezberdiñak euki.

(1) Zaragoza=Bere antziñako izena Salduba zan. (2) Moruen izkuntzan arriaren erreka esangura dauana.
(3) Leunkatu-bako = sin pulir. (4) Catedrático.

A ta guzti, ainbat: ***ebreon, ibarrolle, evrune, ivry, ivors, averdon, avricourt, avrolle,*** yvre eta ainbat izen, danak izkuntz baten erro bardiñetik datozenak.

Frantzezez ez dagoz izen orreik, (nai ta Aleman izkuntzan eber basurdea izan) basurdearen izenagaz elkartuko dauzanik, basurdeei euren izkuntzan sanglier esaten dautsielako.

Orregaitik eber izen orrek berak bakarrik erakusten dau: Erri biak, bata besteagandik ain urbil egonda eta itza Euskerearen antziñako jendekuntzaren errotik artuta, erreka edo ibaiaren adimuga[1] daukala.

Lenago adizkai oneik ez ziralako ondo adierazpenduta egon, Renfrewtar Kolin Ingles arkeologuak, beren adierazpenarekin bidera urten da, esaten eban: ***Indojermanoak edo erri guztien artean ezagutzen diran indoeuropeoaren izenarekin, berandu etorri zirala eta Europara etorri ziranak nekazarien bardiñ antzekoak zirala,*** eurokaz Europaren Neolitikoa egokituta.

Zataraintar Anbrosio aipatu bear dot emen Euskerea-Aleman-Euskeraz itzultzeko egin eban ***duden*** iztegia, askeneko orrazketak berak ezin ebazalako emon, arrigarrizko lan eder ori ametsezko bidean geratu da.

Berak aurkeztu eustan itzezko zerrenda aundi bat: idatz eta esan bardiñak euki ebezan Aleman ta Euskerazko itzak, eta damu naz aren bir-idazki bat orain ez eukitea.

(1) Adi-muga = definición.

Krutwigtar Federikok esaten dauana.

Krutwigtar Federikok esaten dau, Europara indoeuropeoaren aurrekoak etorri orduko, Europa eta Asiaren zati batean, jendekuntz aundi baten, oiñarri bateko izkuntz ezberdiña-kaz mintzatzen zirala eta nastu egingo zirala, agertu ziran erri lapur edo sartzailleakaz[1].

Krutwigek, alkarganatu[2] egiten dauz Dordoña ta Altamirak euki eben jendekuntza, gero agertu ziran Troya[3], Sumeria edo ta Babiloniakoakaz.

Italian Euskerazko toki izen eta itzak.

Italian, euskerazko toki izenak: Liguria[4], Etruria[5], Oszia´n[6] egon zan kokatuta Osko erria[7], guztiak Sizilia ta Alpesetan dagozenak.

Alpe itza, euskerazko Arpe (Arpe, aizpe = cobijo bajo la roca, caverna, pie de la peña, concavidad de la roca) itzatik datorrena da.

Alpeseko toki izenak ***aostan***:

- Artavoz: arta = roca[8], naba = planicie, otz = fin.
- Ayas: aia = vertiente, as = de atrás.
- Arbelei: arbel[9] = pizarra, ei[10] = punta.
- Arieta: Arrieta (arri tokia)
- Arroil: garganta montañosa (euskeraz bardin).

(1) Sartzailleak=invasores.(2) Alkar-ganatu = relacio-nar. (3) Troya´ren ariñagoko izena Ilion izan zan, Euskeraz ili = iri, Uria esan gura dau. (4) Liguria, Genoba inguruan, IIIn. Gizaldian erromatarrak menperatu eben erria. (5) Arno eta Tiber bitartean egon zan Etrusko erria. (6) Oszia,Erromaren Ego Ekialdeko Kanpanian. (7) Len euskerazko orde izenak Erdi Ugarte onein tokietan dagozenak eta Asturias ta Galizian batez be. (8) arkaitz = roca. (9) ar-bel = pizarra. (10) Ei = punta.

Urula ibaia Noruegan

- Arrobi, arpe, aran, arpeta: nido de aguila (arrano abi), bajo la piedra, valle y valle bajo las piedras (euskeraz valle=aran da).
- Gane: cima (euskeraz bardiñ esaten da).
- Lesache, lessona, lezetta: sima (euskeraz: lezea, lezona eta lezeta dira).
- Loy: loi (euskeraz: barro, tierra hùmeda).
- Orio: Gipuzkoako errekea bezala.
- Oyace: oiane (selva).
- Oren: orein (ciervo), eta abar.

Lonbardian: izen asko dira ***ate***´an amaitzen diranak eta euskeraz ainbat dagoz esangura bardiñakin:

-Puerta, paso esan gura dau.

- Albizzate, alzate, lazate, velate, lurate, lainate, azzate, eta abar.

100 kilometrutan 200 izen baiño geiago dagoz.



Elexpururentzat:

Iru lurralde dagoz euskal izen oneik argi erakusten dabezanak.

-Andiena: Piamonteko Iparraldea (italieraz ***piamonte=arpe***=al pie de la montaña, euskeraren antzera Auñamendi lez (al pie de la montaña) eta Oñamendi Pirineosen euskerazko izena.

-Lombardia, Aosta[1], eta Suizan, Ticino edo Tesinoko erri-aldean.

-Eta esan doguzenak baiño, geiago be badagoz: ***azasca, andrate, aranno, artore, arbedo, arese, arizzano, arona, arola, arrobio, arzo, ascona, balzola, barasso, bettola, biasca, gabiola, gauna, gazza, gordola, landarenca, lesa, oria, ossola, zubiena,*** eta bar.

Liguria lurraldean, batez be Savona inguruan eta bere Iparraldean[2]: aiona, albissola, ardola, berri, carcare, olano, orba, ormea, sabona, varezze, eta abar.

Ladinian[3]: agordo, andraz, arabba, ardo, arta, gardena, gares, lasa (tirol), maia, mendola (trentino), padola eta abar.

Milanetik, erreka bi aldatzen dira: Lambro (euskeraz niebla esan gura dauana) eta Olona (avena´ren lurraldea ?).

-Frantziagaz muga egiten dauan ***ubaye*** errekea.

-Ladinian: ***ega*** ibaia.

-Dolomitaseko mendietan: ***bai de doneseko aintzira edo ur geldia. aiarnola, arlas, arblatsch (tz doñuagaz), atalalta, cima de gana bianca (euskeraz bardin), ormea,*** eta abar. Alpeseko mendiak dira.

Aran edo Ibar asko dagoz –ascaren amaieragaz, euskeraz bardin esan gura dauanak: ***val di anzasca, val di verzasca*** eta abar.

Lurralde orrein Izkuntz ta mintzadarren artean be sortzen dira bateratasunak: asciola = acha (euskeraz aizkora).

- Astore = cernicalo (euskeraz aztore).

- Baita = borda (casa del pastor).

Txistuka esaten diran tz eta z geiago dira euskerarenak orko izkuntz latiñoarenak baiño.

Atutxa´tar Paul

Zornotzan 2.017ko urtean Urrillaren 16an



(1) Milan eta Milaneko Iparraldean. (2) Jenobatik urbil. (3) Ladinia, Tirol ta Trentotik ur.

Euskal astea

Urte guztietan lez, aurten be Euskerazaleak Alkartean ospatuko da.

2018-11-26.–

2018-11-27.–

2018-11-28.–

2018-11-29.–

2018-11-30.–

Tokia: Colon de Larreategi – 14 - 2ª esk.

Ordua: **Zazpiretan**

ESKERRIK ASKO ETORTZEAGAITIK

EUSKERAZALEAK

IPUIN SARIKETA

Mesedez bialdu CD edo disketea

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZAk argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmaturikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER-en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- **Azillaren azkenerako** EUSKERAZALEAK ALKARTEAren etxean (Bilbaoko Colon de Larreategi, 14, 2ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer-en agertuko da, Urtarrillean.
- Sariak bost izango dira:

1.ª	300 euro	4.ª	120 euro
2.ª	240 euro	5.ª	60 euro
3.ª	180 euro		

- Ipuiñak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan edo ***info.euskerazaleak@gmail.com*** izen-ordea ta izena.
- Epea azillaren azkenera arte.

EUSKERAZALEAK

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

.....tar .....

..... kalean (auzoan.....zenbakian

.....errian, ...errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko (ogeitamabost euro) kontu onetan:

Euskerazaleak, Bilbao bizkaia kutxa : ES28 2095 0000 74 2000089615 zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

EUSKERAZALEAK. Colon de Larreategi, 14-2. Tel. 94 423 53 22. Bilbao - 48001
info.euskerazaleak@gmail.com.



Egun baten Kanuto
kalera joan zan,
karruak zapalduta
etxera joan zan.

Amak esan ei eutsan
lotara joateko,
atzera kontestau eutsan
ez dot nai amatxo.

Kanuto Zizilindro,
zilindro, Zilindro,
Kanuto Zizilindro...
pux! pux! pux!

Markina-Xemein